

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Lekeitioko Udala****2019ko udal ordenantzen behin betiko onarpena**

2018ko azaroaren 13ko behin behineko ondorengo erabakiak jendaurrean egon diren epealdian ez denez inolako zuzenketa-eskaririk aurkeztu:

1. Ondasun higieziinei gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala aldatzea.
2. Hiri lurren prezioaren igoeraren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala aldatzea.
3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala aldatzea.
4. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala aldatzea.
5. Zerbitzu publikoak ematearen eta jarduerak egitearen gaineko Tasen Ordenantza Fiskal Arautzailea aldatzea.
6. Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxu bereziagatik ordaindu beharreko Prezio publiko Ordenantza Fiskal Arautzailea aldatzea.

Erabaki horiek behin betikotzat jotzen dira Udal Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 16.4 atalean erabakitakoarekin bat, Ordenantzen aipatutako Aldakuntza eta Ezarketa eta Antolamenduen behin betiko testu osoak argitaratuz, 2019ko urtarrilaren 1etik hasita indarrean egongo direlarik eta horren aurka interesadunek Errekurtsioa tartekatu ahal izango dute Administrazioarekiko Auzibidean Azaroaren 20eko 8/1990 Foru Arauaren 3 atalaren arabera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, eskumen hori araupetzen duten arauak erabakitzen duten eran eta epean.

1. Ondasun Higieziainen gaineko zerga arautzen duen Ordenantza fiskalaren aldaketa

Ordenantzaren 8.3 artikuluko zerga ezgarriak:

- Hiri ondasunak: %0,187.
- Industri erabilerarako (I): %0,373.
- Merkataritza erabilerarako (C): %0,271.
- Gainerarako erabilerak, bizitegi erabilerarako (V) eta beste batzuk (Y) salbu: %0,15.
- Landa ondasunak: %0,153.
- Ondasun higiezin bereziak: %1,71.

2. Hiri Lurren prezioaren igoeraren gaineko zerga arautzen duen Ordenantza fiskalaren eranskinaren aldaketa

ERANSKINA II

Karga tasa: %3,07.

3. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren Ordenantza fiskalaren eranskinaren aldaketa

ERANSKINA

Zerga ondoren tarifa-laukiaren arabera ordainduka da:

Potentzia eta ibilgailu mota	Kuota (€)
a) Turismoak	
8 zaldi baino gutxiago	29,67
8-11,99 zaldi	80,20
12-13,99 zaldi	141,43